



Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

KIROL AEROBIC-A

1.- PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK

1.1.- ENTRENATZAILEAK ETA EPAILEAK

Entrenatzaileak:

- Eskola lizentzia eduki behar dute, ikasturtean urtekoa.
- Jarraian zerrendatutako tituluetakoren bat edukitzea:
 1. Gimnastika Erritmikoko edo Aerobic-eko goi mailako teknikariaren titulua (RFEGren 3. maila)
 2. Gimnastika Erritmikoko edo Aerobic-eko erdi mailako teknikariaren titulua (RFEGren 2. maila)
 3. Gimnastika Erritmikoko edo Aerobic-eko oinarrizko teknikariaren titulua (RFEGren 1. maila)
 4. Aerobic-eko monitore titulua (AGFko ikastaroa edo antzekoa)
 5. AFAko eskola begiralearen ikastaroa.

Epaileak:

- Epaile autonomiko, nazional edo nazioartekoaren titulua eduki behar dute.
- Beharrezkoa izanez gero, epaimahaia osatu ahal izango dute AGFko aerobic-eko eskola epailearen ikastaroa egiten duten pertsonak bakarrik.

2.- ARAU TEKNIKOAK

2.1. LEHIAKETA SISTEMA

Lehiaketa hainbat modalitatetan egingo da:

ADIN-MAILAK	<u>EREDUA</u>			ESKAKIZUN TEKNIKOAK
	BANAKA	BIKOTEA	HIRUNAKA EDO/ETA TALDEKA	
BENJAMINAK	X	X	X	AGF Arautegiaren arabera
KIMUAK	X	X	X	AGF Arautegiaren arabera
HAURRAK	X	X	X	AGF Arautegiaren arabera
KADETEAK	X	X	X	AGF Arautegiaren arabera



2.2. LEHIAKETAK ETA JARDUERAK

2017-2018ko ikasturtean honako jarduera hauek antolatuko dira:

- Eskolarteko elkarretaratzeak:
 - 1. hiruhilekoa: banako eta binako modalitatea.
 - 2. hiruhilekoa: hiruak eta taldeak
- Gabonetako topaketa
- Martxoko topaketa.
- Otsaileko topaketa.
- Arabako Eskolarteko Jokoetako kontrola.
- Apirileko topaketa
- Arabako Eskolarteko Jokoetako finalerdia eta finala
- Maiatzeko topaketa.
- Lau Urte-saso Txapelketa
- Ikasturte amaierako jaialdia.

2.3. JARDUTEKO HURRENKERA

Jarduteko hurrenkera zozketa bidez erabakiko da.

2.4. SAILKAPENA

Modalitateetarako sailkapen desberdinak egongo dira:

BANAKA, EMAKUMEZKOAK ETA GIZONEZKOAK

- Banako sailkapena: Egindako ariketarengatik puntuazioa lortuko da.

BIKOTE MISTOAK

- Sailkapena: Egindako ariketarengatik puntuazioa lortuko da.

HIRUNAKA ETA TALDEKA

- Sailkapena: Egindako ariketarengatik puntuazioa lortuko da.

Sailkapenean berdinketarik gertatuz gero, NGFaren kodea aplikatuko da 2017-2020.

2.5. EPAIMAHAIA

Arabako Gimnasia Federazioko Aerobic batzorde teknikoak epaimahaiari prestakuntza emateko epaileak izendatuko ditu, eta lehentasuna emango die epaileen titulazio ofizialei AGFeko eskola epailearen titulazioaren aurretik.

Epaimahaia gutxienez sei epailek osatuko dute, modu honetan banaturik:

Zailtasun epaile 2
Konposizio artistikoko epaile 2
Exekuzioko epaile 2



▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
▶

www.araba.eus

2.6. MUSIKAK

Entrenatzaileek e-mail bidez bidaliko dituzte musikak, mp3 formatuan, horretarako ezartzen den epean, normalean, ekitaldiaren aurreko astean. Halaber, musika eramango dute ekitaldira, cd batean.

3. -DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 Decretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.

ARAUDI HONEK JASOTZEN EZ DITUEN JOKO EGOERA GUZTIAK KIROL AEROBICEKO ESTATUKO BATZORDEAREN JOKO ARAUEN ARABERA EBATZIKO DIRA, BAI ETA ARABAKO GIMNASIA FEDERAZIOAREN ARAUDI ETA ERREGELAMENDU ESPEZIFIKOEN ARABERA